



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TRONPA

2023-02-27

Nori zuzenduak?

Graduko Tronpa interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko otsailaren zoean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Tronpa interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

EPELDE, Rodolfo

Estefanía Beceiro, José Gallego eta Arkaitz Mendoza irakasleek ere parte hartuko dute

9:30-10:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30-12:00 Beroketa eta Teknika eskola kolektiboa izena eman duten ikasleentzat Musikeneko Tronpa ikasleekin batera, Rodolfo Epelde irakaslearekin

12:00-14:00 Musikeneko tronpa ikasleen entzunaldia Arkaitz Mendoza pianista errepertoristarekin

14:00-15:30 Bazkaria

15:30-17:30 Rodolfo Epeldek banakako eskolak emango dizkie izena eman duten ikasle aktiboek, lehentasuna izango dutelarik Sarrera probak 2022-23 ikasturtean egingo dituztenek

17:30-19:00 Estefanía Beceirok Tronpa Natural eskolak emango ditu Musikeneko ikasleentzat

18:00-20:30 Rodolfo Epeldek banakako eskolak emango dizkie Musikeneko tronpa ikasleei.

Tronpa jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:
dpto.vientopercusio@musikene.net